



LEGEGINTZALDI PLANA 2015-2019 PLAN DE LEGISLATURA

*Herria gozatu
Disfruta Erreneria*

adn.erreneria.eus

Erreneria
ADN
kreaktiboa

Jarraian, 2015-2019 Legegintzaldiko Planeko proiektu garrantzitsuenak soilik aipatzen dira, baina guztiak eskuragarri daude www.errenteria.eus webgunean. Proiektu hauek Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren logikaren eta ikuspegiaren baitan kokatu behar dira. Izan ere, Plan estrategiko hori prestatzeko prozesu parte-hartzailean herritarrek eta udalerriko esparru politiko, sozial, kultural eta ekonomikoko ordezkari ugari hartu zuten parte (guztira 268). Udalerrian aldaketa sakon bat behar genuen adierazle kezkaragoriei buelta emateko. Hausnarketa estrategiko bat egin behar zen arlo politikoaz haratago, luzera begirakoa, horrela soilik eralda baitaitezke egitura-arazoak. Hemen azaltzen diren proiektuek, hain zuzen ere, hausnarketa estrategiko hori garatzen dute, eta Errenteria 2025erako prozesuan kokatzen dira.



Los proyectos del Plan de Legislatura 2015 – 2019 que se señalan a continuación sólo son los más importantes de la totalidad de los proyectos que podrás encontrar en www.errenteria.eus. Los proyectos han de situarse dentro de la lógica y la visión del Plan Estratégico Errenteria 2025, que fue redactado tras un proceso de participación ciudadana que contó con la participación de 268 personas y representantes del ámbito político, social, cultural y económico de nuestro municipio. Nuestro municipio necesitaba de un cambio en profundidad para dar la vuelta a unos indicadores realmente preocupantes. Necesitaba una reflexión estratégica que superara lo político, y que tuviera una visión a largo plazo, porque sólo así se pueden transformar los problemas estructurales. Los proyectos que aquí se recogen desarrollan esa reflexión estratégica, y se sitúan en ese espacio temporal hacia Errenteria 2025.

1

ERRENTERIAREN ERALDAKETA SUSTATZEA, GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA IZAN DEZAN APUESTA POR UN DESARROLLO SOCIOECONÓMICO

HELBURUA:

Erreneriak hausnarketa sakona behar zuen, garapen sozioekonomikoko aukera aurkitu behar zen 1980 eta 90eko hamarkadetako industria astunaren gainbeherari aurre egiteko. Hausnarketa hori Erreneria 2025 Plan Estrategikoarekin egin da, eta finkatu da Erreneriak etorkizuna izango badu, ekonomia kreatiboa sustatzen duten politikak gauzatu behar direla.

KONPROMISOAK:

- ▶ **ANGEL DE LA GUARDA ZENTROA, INDUSTRIA-TEKNOLOGIA AURRERATUA:** Abenduan jarriko da abian industria-teknologia aurreratuko mintegia, Angel de la Guarda zentroan, Erreneriako Udalak, Oarsoaldea S.A.k, Tknikak eta Don Boscok iaz sinatutako hitzarmenari esker. Proiektu honen helburua da unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasleei laguntzea lan- eta enpresa-arloko ideiak garatzen.
- ▶ **TORREKUA: HABIAN! FABRIKA KREATIBOA / TEKNOLOGIA KREATIBOA:** 2016ko apirilean Torrekuan lankidetzako elkarlaneko espazio bat egongo da teknologia berrien eta ofizia kreatiboen inguruko proiektuak gauzatzeko. Helburua da baliabiderik ez duten ekintzaileei beren proiektuak abian jartzeko eta garatzeko behar dituzten espazioa, makinak eta laguntza ematea, epe jakin batean. Zentroan 30 pertsona egongo dira.

OBJETIVO:

Erreneria necesitaba de una reflexión profunda y encontrar la alternativa de desarrollo socio-económico al declive de la industria pesada de las décadas de los años 80 y los 90. Esa reflexión se ha producido mediante el Plan Estratégico Erreneria 2025 estableciendo que el futuro de Erreneria pasa por desarrollar políticas que fomenten la economía creativa.

COMPROMISOS:

- ▶ **CENTRO ANGEL DE LA GUARDA, TECNOLOGÍA INDUSTRIAL AVANZADA:** En diciembre se pone en marcha el vivero especializado en tecnología industrial avanzada, ubicado en el Centro Angel de la Guarda y para el que se firmó el pasado año un convenio entre el Ayuntamiento de Erreneria, Oarsoaldea, S.A., Tknika y Don Bosco. El objetivo de este proyecto es facilitar a los estudiantes universitarios y de formación profesional el desarrollo de ideas laborales y empresariales.
- ▶ **LEKUONA, FÁBRICA DE CREACIÓN DE LAS ARTES ESCÉNICAS:** Conjuntamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa se está llevando a cabo en la fábrica de Lekuona la construcción de un Centro de Artes Escénicas que será una fábrica de creación de la danza y el teatro, referencia en Euskal Herria para amateurs y compañías de este sector. Lekuona se convierte así en el icono de la transformación de Erreneria, de una ciudad que se basa en la industria pesada a una ciudad de la economía creativa.



TORREKUA: HABIAN! FABRIKA KREAKTIBOA / TEKNOLOGIA KREAKTIBOA: En abril de 2016 Torrekua será la sede de un espacio colaborativo y cooperativo que albergará proyectos ligados a las nuevas tecnologías y a los oficios creativos. El objetivo es facilitar a los y las emprendedoras que carecen de recursos los espacios, la maquinaria y la asistencia para el arranque y el desarrollo de sus proyectos, con una estancia temporal limitada. El centro acogerá a un total de 30 personas.

► **HIRIGUNE HISTORIKOA BIRGAITZEA ELEMENTU ERAKARGARRIA IZAN DADIN:** Errenteriako hirigune historikoa birgaitzeko asmo handiko plana egingo dugu auzokoen laguntzarekin, udalerriko puntu erakargarri izan dadin. Plan honek eraikuntzaren esparruko lan espezializatua sortuko du.

► **REHABILITACIÓN DEL CASCO HISTÓRICO COMO ELEMENTO DE ATRACCIÓN:** Desarrollaremos un plan ambicioso de rehabilitación del Casco Histórico de Errenteria con la participación de sus vecinos y vecinas, para situarlo como un elemento de atracción de nuestro municipio. La ejecución de este Plan supondrá la generación de trabajo especializado en el ámbito de la construcción.

LEKUONA, ARTE ESZENIKOEN FABRIKA: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Lekuona fabrikan Arte Eszenikoen Zentroa eraikitzen ari gara; amateurrek eta konpainiek dantza eta antzerkia sortzeko fabrika izango da, Euskal Herriko erreferentzia. Lekuona Errenteriaren bilakaeraren ikono bihurtu da, industria astunetik ekonomia kreatibora pasatu den hiriaren erakusgarri.





- ▶ **MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIA:** Erreteriak zerbitzuen sektorea indartu behar du eta erreferentziako eta kalitatezko espazio bihurtu, azterlanen arabera, sektore hori baita gure jarduera ekonomikoan garrantzitsuena. Hartara, sektore eragileekin batera, Erreterian Merkataritza Biziberritzeko Plana idatziko dugu.
- ▶ **ENPLEGU-PLANAK:** Konpromisoa hartzen dugu urtero 500.000 euroko partida bat bideratzeko lan-munduan txertatzeko laguntza behar dutenak kontratatzerara.



- ▶ **PLAN ESPECIAL DE REVITALIZACIÓN COMERCIAL:** Erreteria necesita fortalecer el sector de los servicios y situarlo en un espacio de referencia y de calidad, toda vez que este sector supone la parte más importante de nuestra actividad económica según los estudios realizados. Por ello, con la participación de los agentes del sector, redactaremos el Plan Especial de Revitalización Comercial (PERCO) para Erreteria.
- ▶ **PLANES DE EMPLEO:** Nos comprometemos a reservar anualmente una partida de 500.000 € para la contratación de personas que requieren de ayuda para su inserción laboral.

2 PERTSONAK BABESTEIA, gizartea kohesionatzeko eta garapen iraunkorrerako elementu direlako

PROTECCIÓN DE LAS PERSONAS, como elemento cohesionador de la sociedad y de un desarrollo sostenible

HELBURUA:

Gizarte baten garapen-maila, adierazle ekonomikoez gain, adierazle sozialekin ere neurtzen da. Gizarte batek pertsonak babesteko duen gaitasunak adierazten du gizarte horren kohesio-maila, eta garapen sozioekonomiko handiagorako bide ematen du. Hartara, ez da garapen sozioekonomikorik izango babesik edo gizarte-kohesiorik gabe, eta ez da gizarte-babesik izango garapen sozioekonomikorik gabe ere.

KONPROMISOAK:

- ▶ **GIZARTE-LARRIALDIKO LAGUNTZAK BERMATZEKO KONPROMISOA:** Gure gain hartzen dugu gizarte-larrialdiko laguntzak bermatzeko konpromisoa, bai eta Eusko Jurlaritzak guztiz estaltzen ez dituenean ere (bere eskumena da eta lehen ere egon izan gara egoera horretan).
- ▶ **GIZARTE ZERBITZUEN AHOLKU-KONTSEILUA SORTZEA:** Herritarren parte-hartzea duen aholku-kontseilu bat sortu behar da gizarte-zerbitzuen esparruan, administrazioak etorkizunean pertsonak babesteko izango duen erronka izugarriari erantzuteko. Geroz eta premia sozial gehiago ditugu, eta geroz eta ahalegin handiagoa egin behar dugu horiei erantzuteko. Ezin zaie premia horiei guztiei erantzun hirugarren sektoreko elkarleen parte-hartzerik gabe.

OBJETIVO:

El nivel de desarrollo de una sociedad no sólo se mide en función de unos indicadores económicos, sino también se hace en base a unos indicadores sociales. La capacidad de una sociedad para garantizar la protección de las personas demuestra el nivel de cohesión de esa sociedad, y permite un mayor desarrollo socioeconómico. Por tanto, no hay desarrollo socioeconómico sin protección y cohesión social, ni tampoco existe protección social si no hay desarrollo socioeconómico.

COMPROMISOS:

- ▶ **COMPROMISO DE GARANTIZAR LAS AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL:** Asumimos el compromiso de garantizar las ayudas de emergencia social incluso en el supuesto que no sean cubiertas –como ha ocurrido– en su totalidad por el Gobierno Vasco, que es quién tiene la competencia.
- ▶ **CREACIÓN DEL CONSEJO ASESOR DE SERVICIOS SOCIALES:** Es necesario crear un Consejo Asesor de participación ciudadana en el ámbito de los servicios sociales para dar respuesta al enorme reto futuro de la administración en la protección de las personas. Cada vez son más las necesidades sociales, y han de ser mayores los esfuerzos para responder a ellas. La respuesta a todas esas necesidades no se puede entender sin la participación de las asociaciones del tercer sector.

GIZARTE-ERALDAKETAKO PROIEKTU PILOTUA: Proiektu hori jada abian da Iztieta auzoan. Helburua da pertsonen babesa ulertzea zentzu integral eta transbertselean. Ekintza-plan hau hainbat esparru hobetzeko erronkari erantzuteko xedearekin jarri da abian: espazio publikoa, auzoaren irudia, merkataritza biziberritzea, elkarbizitza eta pertsonen premiak. Horretarako, bulego bat zabaldu da Iztieta auzoan.



- ▶ **KULTURA-ANIZTASUNA ETA JATORRI-ANIZTASUNA:** Harrera protokoloa inplementatzeko lanean ari gara eta elkarbizitza, integrazioa eta errespetuaren aldeko hezkuntza landuko dugu, topo egiteko eta elkarren ezagutza sustatzeko guneak eta aukerak sortuz.
- ▶ **UDAL HIZKUNTZA POLITIKA:** Datozen lau urteotan herritar gehiagok izan dezala euskara ikasteko aukera nahi dugu. Horretarako, doakotasunaren bidean, tasak modu progresiboan merketuko ditugu.
- ▶ **ETXEGABETZEAK ETA ENERGIA-POBRETASUNA:** Doako zerbitzu bat jarriko dugu energia-pobretasunean edo etxea galtzeko arriskuan dauden pertsonen aholkua eta laguntza emateko.



- ▶ **PROYECTO PILOTO DE TRANSFORMACIÓN SOCIAL:** Se trata de un proyecto que ya se está desarrollando en el barrio de Iztieta. El objetivo de este proyecto es entender la protección de las personas en su carácter más integral y transversal. Es un plan de acción para dar respuesta al desafío de mejorar el espacio público, la imagen del barrio, la revitalización del comercio, la convivencia y las necesidades de las personas. A tal fin, se ha abierto una oficina en el barrio de Iztieta.
- ▶ **DIVERSIDAD CULTURAL Y DIVERSIDAD DE ORIGEN:** Estamos trabajando para implementar el protocolo de acogida y fomentaremos la educación a favor de la convivencia, la integración y el respeto mutuo, generando espacios que nos permita encontrarnos y conocernos.
- ▶ **POLÍTICA LINGÜÍSTICA MUNICIPAL:** Para fomentar y ampliar el aprendizaje del euskara entre toda la ciudadanía de Errenteria en los próximos cuatro años vamos a ir abaratando progresivamente las tasas de matriculación.

DESAHUCIOS Y POBREZA ENERGÉTICA: Pondremos un servicio gratuito de asesoría y ayuda para aquellas personas que se encuentren en una situación de pobreza energética o de riesgo de desahucio.

3

PERTSONENTZAKO INGURUNEA UN ENTORNO PARA LAS PERSONAS

HELBURUA:

Hiri baten espazioa kudeatu behar da pertsoneri ahalik eta bizi-kalitate onena eskaintzeko moduan. Hiriko espazioan eragiten duten udal-politikek babes eta kohesio soziala izan behar dituzte helburu, sexu-berdintasuna, garapen iraunkorra, bizi osasungarrirako espazioak, mugikortasun-arazoak dituenentzako irisgarritasuna eta erakargarriak eta bereziki interesgarriak izan daitezkeen espazioak sustatzea.

KONPROMISOAK:

- ▶ **HONDAKINEN % 60 GAIKA BILTZEA:** Hondakinei buruzko ordenantza berria prestatuko dugu eta Europar Batasunaren jarraibideak betetzeko beharrezko neurriak jasoko ditu.

OBJETIVO:

El espacio de una ciudad ha de ser un espacio destinado a buscar la mejor calidad de vida de las personas. Las políticas municipales que vayan dirigidas a intervenir sobre un espacio urbano han de buscar la protección y la cohesión social, la igualdad entre los sexos, el desarrollo sostenible, la generación de espacios para una vida saludable, la accesibilidad para las personas con problemas de movilidad y la potenciación de aquellos espacios que puedan resultar atractivos y de especial interés.

COMPROMISOS:

- ▶ **CONSEGUIR UN 60 % DE RECOGIDA SELECTIVA:** Se elaborará una nueva ordenanza de residuos, que recogerá las medidas que sean necesarias para cumplir con las directrices de la Unión Europea.



CUMPLIMIENTO DEL PLAN DE ACCIÓN DE ENERGÍA SOSTENIBLE: Tras adherirnos en el 2012 al Pacto Europeo de Alcaldes y Alcaldesas estamos implementando medidas para reducir nuestras emisiones de gases de efecto invernadero en un 20% para el año 2020, incrementando un 20% las medidas de eficiencia energética y otro 20% el uso de las energías renovables.

- ▶ **ENERGIA JASANGARRIRAKO EKINTZA-PLANA BETETZEA:** 2012an bat egin ondoren Alkateen Europako Itunarekin, neurriak ezartzen ari gara berotegi-efektuko gasen isuriak % 20 murrizteko 2020rako, eraginkortasun energetikoko neurriak % 20 handitzeari eta energia berriztagarrien erabilera % 20 igotzeari esker.

- ▶ **CONSTRUCCIÓN DE APARCAMIENTOS EN OLIBET E IGANTZI:** Construiremos nuevos aparcamientos libres y gratuitos en el barrio de Olibet con capacidad para 140 vehículos, y en el barrio de Igantzi, con capacidad para 35 vehículos.



ALABERGA GOIA ETA BEHEA LOTZEKO IGOGAILUA ERAIKITZEA: 2016an hasiko dira Alaberga Goia eta Behea lotuko dituen igogailua eraikitze lanak, eta 2017an amaituko dira. Halaber, beste aukera batzuk ere aztertuko ditugu, adibidez, igogailu bat jartzea Pontika eta Igantzi lotzeko, edo Galtzarabordan edo Beraunen.

- ▶ **OLIBETEN ETA IGANTZIN APARKALEKUAK EGITEA:** Doako aparkaleku berriak egingo ditugu Olibeten 140 ibilgailurentzat, eta Igantzin, 35 ibilgailurentzat.
- ▶ **BARANDIARAN PARKEA EGITEA ETA ARRAMENDI PARKEA HOBETZEA:** Konpromisoa hartzen dugu Barandiaran parkea egingo dugula, proiektua herritarren parte-hartzearen bidez definitu ondoren. Halaber, Arramendi parkea birdefinituko dugu, espazioa eta erabilera hobetzeko.

- ▶ **CONSTRUCCIÓN DEL ASCENSOR QUE UNE ALABERGA BAJO Y ALTO:** Iniciaremos en el año 2016 las obras de construcción del ascensor que une Alaberga Bajo y Alto que finalizará en el año 2017. Así mismo, estudiaremos la posibilidad de la construcción de otros ascensores, como el ascensor que une Pontika y Igantzi, un ascensor en Galtzaraborda, o en Beraun.
- ▶ **CONSTRUCCIÓN DEL PARQUE BARANDIARAN Y MEJORA DEL PARQUE ARRAMENDI:** Nos comprometemos a la construcción del Parque Barandiaran tras un proceso de participación ciudadana que defina el proyecto del citado parque. Así mismo, procederemos a una redefinición del Parque Arramendi, a fin de mejorar el espacio y su uso.
- ▶ **REFORMA INTEGRAL DEL CAMPO DE FUTBOL Y ATLETISMO DE BERAUN:** La reforma integral del Estadio del campo de futbol y atletismo de Beraun tiene un presupuesto de 1.900.000 €. Solicitaremos subvenciones al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su reforma integral, que la acometeremos en diferentes fases.



- ▶ **OIARTZUN IBAIA HOBETZEA: ONDARTXON JARDUKETAK BURUTZEA ETA FANDERIA INTERPRETAZIO-ZENTROA ERAIKITZEA:** Onartu berri den Oiartzun Ibaiaren Paisaiaren Planean ezarritakoa betez, ibaiaren azken zatian –Ondartxo– jarduketa garrantzitsuak burutuko dira eta interpretazio-zentro bat eraikiko da Fanderiako errotan.
- ▶ **MEJORA DEL RIO OIARTZUN: ACTUACIONES EN ONDARTXO Y CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE FANDERIA:** En cumplimiento del recientemente aprobado Plan del Paisaje del Río Oiartzun se procederá a la realización de importantes actuaciones en su tramo final – Ondartxo -, así como a la construcción de un centro de interpretación en el Molino de Fandería.
- ▶ **BERAUNGO FUTBOL ZELAIA ETA ATLETISMO-PISTA GUZTIZ BERRITZEA:** Beraungo futbol-zelaia eta atletismo-pista hartzen dituen estadioa guztiz berritzeko lanen aurrekontua 1.900.000 € da eta lanak faseka gauzatuko dira. Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari diru-laguntzak eskatuko dizkiegu.
- ▶ **PROYECTO DE AMPLIACIÓN DEL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL:** Errenteria tiene una histórica carencia de instalaciones deportivas que den respuesta a las necesidades de los clubs deportivos. Se encuentra entre nuestras prioridades, la construcción de una ampliación del polideportivo municipal.
- ▶ **UDAL-KIROLDEGIA HANDITZEKO PROIEKTUA:** Errenteriak historikoki ez du kirol-instalazio nahikorik izan kirol-elkarteen beharrei erantzuteko. Gure lehenetasuna da udal-kiroldegia handitzea.
- ▶ **CONSTRUCCIÓN DE UN ALBERGUE:** Una vez trasladada la actual Biblioteca a Niessen, proponemos la construcción de un albergue municipal en las actuales instalaciones de la Biblioteca, a fin de buscar soluciones a la enorme carencia de alojamientos que existe en nuestro municipio.
- ▶ **ATERPETXE BAT ERAIKITZEA:** Proposatzen dugu oraingo liburutegia Niessenera eramaten denean udal-aterpetxe bat eraikitzea liburutegiaren egungo instalazioetan, gure udalerriko ostatu-gabezia handia konpontzearen.

4

KREATIBITATEAN HEZI, ERALDAKETA GAUZATZEKO EDUCAR EN LA CREATIVIDAD COMO VALOR DE TRANSFORMACIÓN

Helburua: Beren gaitasunak garatzen eta sormena lantzen duten balioetan hezi behar ditugu pertsonak, horixe baita gizarte-eraldaketarako armarik onena. Pertsona aktibo eta dinamiko ahaldunduak nahi ditugu bizitzaren arlo guztietan, beren etorkizunaren jabe diren pertsonak. Prestakuntza eta trebakuntza eman behar dizkiegu, gizarte-eraldaketarako espazioak sor ditzaten hezkuntza formalean nahiz ez-formalean.

Konpromisoak:

► **EMAKUMEEN ETXEA:** Adin, jatorri eta klase sozial ezberdinetako emakumeen arnasmunea izango den etxea eraiki nahi dugu. Emakumeek emakumeentzat diseinatu eta egikarituko duten espazioa sortu nahi dugu, horretarako beharrezkoak izango diren parte-hartze prozesuak aktibatze konpromisoa hartuz.

GAZTE PLANA: Haur eta gazteak ahalduntzea eta gure herriaren eraikuntzan subjektu aktibo bilakatzea du helburu plan honek. Hiru adin-tartetan banatuta, prozesu parte-hartzaileak jarriko ditugu martxan. Herriko jolasparkeen egoera, aisialdi eskaintza, emantzipazioa, lan munduratzeara... eta beste hainbat arloren inguruan hausnartu eta eztabaidatu, hutsuneak identifikatu eta aurrera begirako erronkak zehazteko.

Objetivo: Debemos educar y formar a las personas en valores que desarrollen sus propias capacidades, que desarrollen su creatividad, como arma de transformación social. Queremos educar personas activas y dinámicas empoderadas en todos los aspectos de su vida, y que sean capaces de conquistar su propio futuro. Necesitamos formar y capacitar a personas para que generen espacios de transformación social tanto en la educación formal como en la no formal.

Compromisos:

► **CASA DE LA MUJER:** Queremos construir una casa que sea el punto de encuentro de mujeres de diversas edades, orígenes y clases sociales; un espacio ideado por y para mujeres. Nos comprometemos a activar los procesos participativos necesarios para llevarlo a cabo.





NUEVA BIBLIOTECA: Entendemos la cultura como un derecho social fundamental. Las bibliotecas son los núcleos principales de la cultura, los núcleos donde se fomenta el empoderamiento y la formación antes mencionados. Así, construiremos una nueva biblioteca en el centro, una biblioteca que responda a las necesidades del siglo XXI.

- ▶ **LIBURUTEGI BERRIA:** Kultura oinarrizko eskubide sozial gisa ulertzen dugu. Kulturaren gune nagusiak ditugu liburutegiak, aipatu dugun ahalduntzea eta formakuntza sustatzeko guneak. Horregatik gure herriko erdigunean liburutegi berri bat egingo dugu, XXI. mendeko beharrei erantzungo diena.
- ▶ **ESKOLA KONTSEILUA ETA HEZKUNTZA PLANA:** Ikastetxe guztien ordezkaritza batuko duen kontseilua abiatu dugu, herriko hezkuntzaren errealitateaz hausnartu eta datozen urteei begirako erronkak zehazteko asmotan.
- ▶ **BERAUNGO KULTUR ETXEA:** Pasa den legegintzaldian hartutako konpromisoari jarraituz eta gure herritarren eskubideak bermatze aldera ez dugu erdialdean gelditu nahi eta Beraunen kultur etxe bat sortuko dugu. Bertan liburutegi zerbitzuaz gain ekingtza kultural aberatsa sustatuko dugu.
- ▶ **PLAN DE JUVENTUD:** El objetivo de este plan es el empoderamiento de niños, niñas y jóvenes y su participación como sujetos activos en la construcción de nuestro pueblo. Se pondrán en marcha tres procesos participativos, uno para cada franja de edad. Se reflexionará y debatirá sobre temas como la situación de los parques infantiles, la oferta de ocio, la emancipación y la inserción laboral, entre otros, al objeto de identificar carencias y establecer retos de futuro.
- ▶ **CONSEJO ESCOLAR Y PLAN DE EDUCACIÓN:** Se ha puesto en marcha un consejo que reúne representantes de todos los centros, para analizar la realidad educativa del municipio y establecer retos para los próximos años.
- ▶ **CASA DE CULTURA DE BERAUN:** Siguiendo con el compromiso adquirido en la legislatura anterior y para garantizar los derechos de la ciudadanía, no queremos limitarnos simplemente al centro y crearemos una casa de cultura en Beraun, donde además de ofrecer el servicio de biblioteca impulsaremos una amplia acción cultural.

5

ADMINISTRAZIO BERRIA, ERRONKA BERRIEI AURRE EGITEKO NUEVA ADMINISTRACIÓN PARA NUEVOS RETOS

Helburua: Administrazio eraginkorra izan behar da sektore publikoaren pribatizaziorako joerari aurre egiteko; badakigu, eta horrexegatik, gure erronka garrantzitsuenetako bat administrazio eraginkorra sortzea, herritarren beharrei erantzuteko gai dena gardentasunez, hurbiltasunez eta eraginkortasunez, administrazioa pertsonen beharretara egokituta, eta ez alderantziz.

Konpromisoak:

HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUA ABIAN JARTZEA: Herritarren arretarako zerbitzua abian jarriko dugu, goizeko eta arratsaldeko ordutegiarekin, herritarren eskaerei azkar eta eraginkortasunez erantzuteko. Leihatila bakarreko zerbitzua sortuko dugu; prozedurak sinplifikatuko dira eta erantzun-denbora gutxituko.

Objetivo: Sólo una administración eficaz es capaz de combatir la tendencia de privatización del sector público. Conscientes de ello uno de los retos más importantes que tenemos es el de crear una administración eficaz, que sea capaz de responder a las necesidades de la ciudadanía con transparencia, cercanía y efectividad, adaptando la administración a las necesidades de las personas, y no al revés.

Compromisos:




PUESTA EN MARCHA DE UN SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA: Implantaremos un servicio de atención a la ciudadanía, con horario de mañana y tarde que dé respuesta a las demandas de las personas con celeridad y efectividad. Crearemos un servicio de ventanilla única, simplificando procedimientos y mejorando el tiempo de respuesta.



- ▶ **AUZOKO UDALTZAINEN PROGRAMA SUSTATZEA:** Auzoko udaltzainekin ikusi dugu herritarrengandik gertu egoteari esker zerbitzuaren kalitatea hobetu dugula eta prebentzioko jardura gehiago burutzen ditugula. Udaltzaingoaren zerbitzua proaktiboa da, erreaktiboa beharrean.
- ▶ **HERRITARREN SEGURTASUNEAN PARTE HARTZEKO KONTSEILUA SORTZEA:** Herritarren segurtasunari dagokionean, prebentzioaren alde egiten dugu, eta horrek esan nahi du politika transbertsalak aplikatu behar direla eta polizia-politika soilak baino haratago joan. Horretarako, Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko Kontseilua eratuko dugu, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin batera, Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Hezkuntza eta beste hainbat departamentu nahiz esparru horietan jarduten diren kolektibo edo elkarteak bilduta.
- ▶ **HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO BITARTEKOAK UGARITZEA:** Pertsonak herritar gisa jarduteko bideak sortzen jarraituko dugu, alegia, errealitate politikoa eta soziala sortzeko eskubidea baliatzeko espazioak.
- ▶ **GARDENTASUNAREN ATARIA SORTZEA:** Administra-zioak gardena izan behar du, eta herritarrek eskubi-dea dute informazio publikorako sarbidea izateko; horregatik sortuko dugu gardentasunaren ataria.
- ▶ **POTENCIACIÓN DE LA GUARDIA MUNICIPAL DE BARRIO:** La Guardia Municipal de Barrio se ha revelado como un metodo que desde la proximidad a la ciudadanía ha permitido una mejora de la calidad del servicio y un incremento de las actuaciones preventivas. Una Guardia Municipal que presta su servicio de manera pro-activa en vez de reactiva.
- ▶ **CREACIÓN DEL CONSEJO DE PARTICIPACIÓN DE LA SEGURIDAD CIUDADANA:** Apostamos por la prevención en la seguridad ciudadana, y eso significa aplicar políticas transversales que superen las meramente policiales. Para ello, crearemos este Consejo de participación ciudadana, que junto a la Ertzaintza y la Guardia Municipal, incorpore a los Departamentos de Servicios Sociales, Igualdad, Educación, etc., así como a colectivos o asociaciones que trabajen en estos ámbitos.
- ▶ **INCREMENTAR LOS MECANISMOS DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA:** Seguiremos profundizando en la articulación de canales en los que las personas de este pueblo puedan ejercer de ciudadanos, es decir de sujetos con derecho a crear realidad politica y social.
- ▶ **CREACIÓN DE UN PORTAL DE LA TRANSPARENCIA:** La transparencia de la administración es un deber, y el acceso a la información pública un derecho de la ciudadanía. Para ello, crearemos un portal de la transparencia.

Errenteria



kreaktiboia



Errenteriako Udala



HERRI BIZIA

Errenteriako
udal komunikabidea

herribizia.errenteria.eus

adn.errenteria.eus